

BIGARREN GAIA: PARLAMENTUA. GORTE NAGUSIAK

(Liburuko 2.bolumena, 27,28 eta 29.kapituluak /29.kapitulua garrantzitsuena/ 509-618) (Liburutik ondo ikasi)

Gorte nagusiak dira Espainiar Estatuan parlamentuak hartzen duen izena, eragin historikoaren poderioz.

2.1.PARLAMENTUA SISTEMA PARLAMENTARIOAN

Parlamentuak (ordezkarien biltzarrak) existitzen dira Europan erdi arotik (atzerago ez joateagatik), erdi aroan erregearen eta parlamentuaren arteko gatazkak hasten dira boterea eskuratzeko, gaur egun dugun Sistema Parlamentariora ailegatzeko. Erdi aroko ordezkarien biltzarrak ziren. Aurrekontuen onespina. Ingalaterran eman zen lehenbizi, XVII.mendean hasten da parlamentuaren aldetik erregearen aurkako borroka, erregeak zuen botere absolutua bereganatzeko (egiata boterea nobleziak ere zuen ez soilik erregea); parlamentua da Ingalaterran erregeak duen botere politikoa bereganatzen hasten duena, lehen iraultza XVII.mendearen erdialdean (gutxi gorabehera 1640-1650), lehendabiziko iraultza liberala (Cromwell- en eskutik, gertaera honetan erregeari lepoa moztean, Parlamentuak berebiziko indarra eskuratu zuen). Herrialde bakarra lau mendetako ibilbidearen ondoren sistema “demokratikoa” etengabe izan duena eta AEB da hurrengo independentzia lortu zuenetik aurrera; beste guztietan atzera-pausuak ohikoak izan dira (monarkiak berrezarri, eskubideak lurrera bota...)

Prozesu honetatik ez da bakarrik ateratzen parlamentuek erregeari boterea kendu diotela, ere sortu da sistema parlamentarioa, horrek esan nahi du parlamentua sistema osoaren azken oinarria dela, hau da, botere guztien zilegitasuna parlamentuan hartuko duela oinarria. Parlamentua da botere legegileaz gozatzen duen organoa, salbuespena da sistema parlamentarioa ez duten herrialdeetan; Frantzia da sistema parlamentarioa ez duen sistema bakarra Europa osoan (sistema presidentzialista ahula dauka).

- Parlamentua gobernu-sistema parlamentarioan: sistemaren zutabe nagusia da. Gobernuak Parlamentuaren uste ona edo konfiantza behar du jarduteko; parlamentuak lau eginkizun honetaz enkargatzen da besteak beste:

- . Gobernuko buruzagia hautatzen du;
- . Gobernuko buruzagia ken dezake;
- . Gobernuko jarduera kontrolatzen du;
- . Gobernuko jarduera bultzatzen du.

Lau betekizun hauetan gauzatzen da sistema parlamentarioan parlamentuak duen boterea, gauzak egoki eta lasai egin ahal izateko gobernuak gehiengo izan behar du parlamentuan baina hau ez du esan behar gehiengo absolutua

izan behar dela nahitaez. Sistema politikoaren arabera zailtasunak izan ahal ditu nahiz eta gehiengo absolutua izanda. **Gehiengo motak: *Gehiengo absolutua*** (gure sistema parlamentarioan normalean gehiengo absolutua eskuratzean inolako zailtasunik gabe gara dezakegu gure politikak baina zailtasunak izan daiteke gobernuak gauzak aurrera ateratzeko, gobernuak egindako politikengatik eragindako presio soziala dela eta, bizitasun politikoa markatuko du hori; Espainiar estatuko sistema parlamentarioa oso apala da, oso bizia aldiz Ingalaterrakoa; *back benchers*-en papera dela eta). ***Gehiengo kualifikatua*** (gehiengo absolutua, ganberaren $\frac{2}{3}$ edo ganberaren $\frac{3}{5}$ izan ohi da). Eta azkenik ***gehiengo sinplea*** (bozka gehiago alde kontra baino).

Hauteskunde sistemaren arabera parlamentua biziagoa edo apalagoa izango da. Izan ere hauteskunde sistema sendoenek hautesleen eta ordezkarien arteko lotura pertsonalizatzen dute; barruti bakarra hautatzen den hauteskunde maioritarioetan eta hauteskundeak egiten badira herriaren iritzia ezagutzeko logikoa litzateke errepresentatzea hautesleak nahi dutena. Sistema proportzionala ezartzen bada bizitasun hori arriskuan dago. Sistema proportzionaletan alderdiek botere handia dute, "Monolismo Político". Hauteskundeak egiten badira herriaren iritzia ezagutzeko logikoa litzateke errepresentatzea hautesleak nahi dutena. Biziagoak diren sistema parlamentarioak dira kontuan hartzen dituztenak nahiz eta batzuetan errepresentazio perfektuaren kaltetan, errepresentazio perfektua izaten dutenen kaltetan kontuan hartzen dute hautesleen eta ordezkarien artean. Sistema maioritarioetan gertatzen dena da alderdi guztietan daudela (*backbenchers*; Westminster sisteman *Backbencher* bat parlamentu kide edo legegile bat da zein ez du kargu bat gobernuan eta ere ez da *frontbencher* bat "parlamentu kide bat lehenengo ilaran esertzen dena") oposizioan eta hori dela eta bere aulkia atzeko ilaran dago. *Backbencher* bat izan daiteke parlamentu kide berri bat, politikari senior bat jada gobernuan ez dagoela edo beste parlamentu kide bat zein arrazoi bat edo bestetik ez da hautatua izan ministerio bat aurrera eramateko edo oposizioaren gabinetearen parte izateko. Ez dute botere askorik gobernuan eragiteko baina beren boterea da bere zirkunskripzioetako jendearen iritziak parlamentura ailegatzea.

Gobernuak Parlamentuan gehiengo izatearen beharra eta gehiengo parlamentarioa izatearen onurak: egonkortasun politikoa izango da beti.

- Botereen banaketa?: Botere legegilearen eta botere betearazlearen arteko lotura hestua. Garai honetan deitzen dugun sistema demokratikoen oinarri garrantzitsuenetakoa, ez dago sistema demokratikorik botereen banaketarik gabe. ***Botere banaketa ez duen gizarterik eta herritarren eskubideak babesten ez duen herririk ez du konstituziorik***. Sistema demokratikoa jaio zenetik lotuta dago beste gauza batzuekin batera, hau da botereen banaketarekin, askotan txarto interpretatuta dago zer den, modu klasikoan mintzatzen da hiru botere izango balira bezala eta hirurak bereizi behar direla (legegilea, betearazlea ta judiziala), baina legegilea eta betearazlea oso lotuta daude, botere betearazlea parlamentuaren gehiengoarekin gauzatzen da.

Gaur egungo sistema parlamentarioetan botere politikoa gobernua du; normalean hauteskundeetan jokoan dagoena da lehendakaritza. Gaur egungo sistema parlamentarioetan hauteskundeak dira gobernuburua zuzenean hautatzeko eta ez zerrendako bakoitzak banan-banan aukeratzeko, eta ondoren gobernua hautatzen duena parlamentua da.

Hauteskunde sistema batean ordezkariak egoki babestu behar den gauza bat da baina ez bakarria sistema bizia izatea nahi badugu.

Baina kontuan hartzekoa da, ia beti gobernua osatuko duen alderdia ordezkari gehien lortu duena izango dela. I eta II mundu gerren artean eratua. Gaur egungo sistema parlamentarioak alderdiek kontrolatzen dituzte. Gobernuburua izateko hautagaiak ere alderdiek aukeratzen dituzte.

Bestetik, Gobernuak guztiz baldintzatua dago hauteskundearen emaitzekin. Gaur egun, hauteskunde parlamentarioak ez dira zerrendako pertsona finko batzuk hautatzeko, baizik eta gobernuburua hautatzeko. Hori ematen dio alderdiaren buruzagiari botere politikoa handia. Sistema parlamentarioa arrazionalizatu duten osagaiak alderdi politikoak izan dira.

- Parlamentarismo arrazionalizatua: alderdi politikoak oinarritzko zutabe gisa. Parlamentarismoa guztiz kontrolatua dago.

Parlamentua Gobernuaren gidari eta bultzatzaile da ala gobernuaren mende dago gaur egun?

Walter BAGEHOT (*The English Constitution*): "The legislature chosen, in name, to make laws, in fact finds its principal business in making and keeping an executive". Esaten digu parlamentua botere legegilea dela eta bere eginkizunik inportanteena legeak egitea dela, baina hori BAGEHOT esaten duen bezala gezur borobila da, nola gobernu orok bilatzen dutena izango da botere betearazlea sortzea eta karguan eustea, hori baita sistema politikoaren oinarri nagusia. Politikoki funtsezkoa dena da gobernua eratzea eta kargua eustea egonkortasuna izateko, beraz, egonkortasun politikoa da funtsa. **Sistema parlamentarioaren eginkizunik garrantzitsuena exekutiboa eratu eta mantentzean datza, legeak egiteaz beste. Beraz, egonkortasun politikoa lortzea, hori da funtsa.**

2.2.GORTE NAGUSIAK: OSAERA

Espainiar estatuko Gorte Nagusiak estruktura bi-kamerala dute (bi-ganberaduna), Diputatuen Kongresua eta Senatuarengatik osatua (Espainiar Konstituzioaren 66.1.artikulua), hala nola. Parlamentuak ganbera batekoak edo bitakoak izan ohi dira. Honetarako bi irizpide kontuan hartzen dira:

- **Arrazoi historikoak:** Sistema demokratikoak ezarri nahi direnean ganbera bakarreko parlamentuak eraikitzen dira. Demokrazian oztupoak jarri izan nahi direnean, aldiz, bi ganberaduneko foru parlamentarioak osatzen dira. Ganbera horietan gizarte klaseak banatzen direlarik.

Horrela, ganbera bati besteari baino botere gehiago ematen diote (nobleena, normalean). Kontuan izan behar dugu hurrengoak: frantsesek nazioaren kontzeptu liberala sortzen dutenean, inolako jabego ez duten pertsonengan erabaki ahalmena ematea harrigarritzat hartzen da:

nola eman boterea inolako interesik babesten ez duen pertsona bati? Hori da lerro batetik bigarren ganbera baten existentzia justifikatzeko arrazoia: goiko ganbera behar da, beheko ganbera dituen "gehiegikeri" edo "zoramen" demokratikoak kontrolatzeko. Beheko ganbera hau bozka eskubidea duen edonor aukeratuko du, goiko ganberan interes bakan batzuk ordezkaturik daudela (botere ekonomiko eta noblezia handien interesak alegia). Ganberak botere bera dutenez gero, bi ganberetako parlamentu orekatua osatzen dira.

- Herrialde demokratikoen historian, bi ganberadun parlamentuak osatzeko bigarren lerro bat existitu da, hain zuzen **lurraldeen interesak ordezkatzea** bigarren ganbera batean. Ondorioz, beheko ganbera estatu mailan hautatua izango (herritarrak ordezkatzeko) da eta goiko ganbera federazioen herrialde bakoitzak aukeratuko du (federazioak ordezkatzeko). Bigarren ganberan lurraldeen interesak lurraldeak diren gizan ordezkatzeko dira. Joera da estatu federalaren estatu mota ezarri nahi denean bi ganberadun sistema ezartzen saiatzea lurraldeen interesak defendatzeko (beste gauza bat izango da hori ondo egitea edo ez).

Espainiar estatuan bi ganberetako parlamentua dugu (Diputatuen Kongresua eta Senatuak). Espainiar estatuan erabilitako justifikazioa konstituzioak 69.1.artikuluaren esaten duen moduan senatuak "lurraldeak ordezkatzeko ganbera" dela; baina errealitatean senatuak probintzien interesak ordezkatzeko ditu. Gainera, bigarren irakurketarako ganbera moduan funtzionatzen du, nolabait, kongresuak baino muga handiago ditu; Senatariak herriak zuzenean hautatuak izango dira, txiki batzuk izan ezik, sistema "federaletan" bigarren ganbera hautatzeko formulak eboluzionatu dira; hasiera batean Autonomia Erkidegoetako parlamentuak izendatzen zituen senatariak, ondoren hau aurrera egin du eta herritarrok erabakitzen dute.

Adibidea: Alemanian lurralde bakoitzeko gobernu erregionalak zuzenean izendatutako ordezkariak dira Goiko Ganbera (Bundesrat) osatzen dutenak.

Huteskunde sistemari dagokionez eztabaida bat dago huteskunde-sistema babesten bada sistema proportzionalarekin. Konstituzioak esaten du sistema proportzionalen arabera hautatzen direla Diputatuak eta Senatariak. Honek gatazkak eragiten ditu. Ordezkarien kopuru osoa proportzionaltasunaren babesa baldintzatzen du. Kopuru handi batek babes gehiago eskaintzen dio. Konstituzioak legegileari tarte bat uzten dio sistema ezartzeko.

Diputatuen kongresua: osaera (Espainiar Konstituzioaren 68.artikulua):

- 300 eta 400 arteko kide izango ditu.
- Sufragio unibertsal, libre, berdin, zuzeneko eta isilpekoz hautatuak izango dira diputatuak.
- Hauteskunde-barrutia: probintzia. Probintzia guztiak txikiak izango balira ez litzateke arazorik izango baina Espainiar estatuan probintzia handi eta txikiak daude eta ere daude probintzia batzuk handiak direnak biztanle gutxi dituztenak eta probintzia txiki batzuk biztanle asko dituztenak; honek proportzionaltasuna zaildu dezake. Konstituzioak esaten du biztanleen kopuruen arteko aldea kontuan izan gabe probintzia bakoitza bi ordezkari gutxienez izan behar dituela (Ceuta eta Melilla aldiz, ordezkari bakarra), honek proportzionaltasuna zaildu dezake.
- Probintzia bakoitzak: gutxienerako ordezkari zenbait (eta Ceuta eta Melilla, diputatu bana).
- Probintzia bakoitzean hautatuak, ordezkaritza proportzionala harturik irizpidetzat.

- Hauteskunde-sistema orokorraren Lege Organikoa:

- 350 diputatu osatzen dute Kongresua.
- Probintzia bakoitzari, gutxienez, bi diputatu (Ceuta eta Melilla, bana). Kontuan izanda 50 probintzia gutxi gorabehera daudela eta bakoitzari ordezkari minimoa eman zaiola, ondorioa argi dago: proportzionalitatea gauzatzea oso zaila da.
- D'Hont hauteskunde-sistema: hondar handieneko sistema proportzionala. D'Hont sistema duen ondorioz garrantzitsuena proportzionalitatearen inguruan da bultzatzen dituela bozka gehien dituen alderdiak eta eserleku gehiago ematen die (ez da proportzionalitate purua). Proportzionalitate purua emateko jakin behar da zenbat pertsona eman duten bozka, zenbat eserleku dauden eta horren arabera atera kalkuluak, eragiketa matematiko zehatzak eginez. Ondorio berezi bat du eta bada, hauteskunde barruti batean bozka gehiago lortu duten alderdiei plus bat ematen diola eta proportzionalitatez zegozkion eserleku baino gehiago lortzen ditu, bozka gutxien lortzen dutenek aldiz ordezkaritza txikiagoa lortuko dute zegozkienarekiko.
- Biztanle gutxien duten probintziek ordezkaritza handiagoa dute, biztanle gehien dutenen kaltetan. Eskuineko alderdiek atera dute onurak honekin (PP).

- Senatua: osaera (art. 69)

- 4 senatari probintzia bakoitzean, hautesleek hautatuak (gehi uharteak -2 edo 1- eta Ceuta eta Melilla –bina-).
- Autonomia Erkidegoak: bakoitzak senatari bat gehi beste bat bere lurraldeko milioi bat biztanleko, haien Autonomia Erkidegoko Parlamentuek hautatuak. Senatari guztien artean oso kopuru txikia dira.
- Gehiengoaren sistema plurinominala (sistema maioritario plurinominal) (hauteskunde barruti bakoitzean ordezkari bat baino gehiago), gutxiengoari leku egiten diona: hautesleek, gehienez, hiru hautagaiei eman diezaiekete bozka (lau hautatzeko)

2.3.GORTE NAGUSIAK KONSTITUZIO-ANTOLAMENDUAN

Bi Ganberetako Parlamentu desorekatua

- Kongresuaren gailentasuna eta Senatuaren mendekotasuna haren ondoan. Gutxi dira gaur egun sistemak non bi ganberak boterean parekatuta dauden, gehienak dira sistemak (guztiak ez esateagatik) desorekatuak. Gutxi dira ausartzen direnak defendatzen goiko ganbera egon behar dela beheko ganberaren gehiegikeriak mozteko edo kontrolatzeko. Sistema batzuetan bigarren ganbera izan ohi ditu lurralde sistemarekin lotuta dauden arazo batzuen inguruko kompetentzia bakarrak (adibidez, AEBko senatua) eta badago ere sistema federaletan beste justifikazio bat (Alemanian ezarri den bigarren ganberaren ideia federala hoberen identifikatzen duena da; ez ditu beheko ganberak dituen botere berberak legeak onesteko baina lurralde egituraketarekin lotuta dauden gauza asko aldiz bai, konstituzioak adierazten dituenak hain zuzen ere, eremu horietan legeak onesteko ezin bestekoa da bigarren ganberaren onspena). Sistema desorekatuak dira bi ganberadun sistema parlamentarioak, sistema federalaren bereiztasunak (Alemania, adibidez) alde batera utzita.
- Gobernua sortzean eta eustean, beheko ganberak du nagusitasun osoa, beheko ganbera da gobernua (eta presidentea noski) bakarrik aukeratzen duena, (senatuak ez du honetan parte hartzen).
- Legeak sortzean, bi ganberak parte hartzen dute baina bat ez badatoz kongresuak erabakiko du zer motatako legea egingo den, hau da, kongresuak gai izango da bere nahia senatuaren gaintik ezartzeko eta ere izango du eskumena senatuak nahi ez duen lege bat aurrera ateratzeko.
- Lege-Dekretuak baliatzea (edo baliozkotzeak). Kongresuak bakarrik erabakitzen du, senatuak ez du ezer egiten, hau oso garrantzitsua da eta berebiziko eragina du.

- Gobernuari erantzukizun politikoa eskatzean: Gobernuaren uste ona edo konfiantza adieraztean (gaitzespen mozioa eta uste oneko mozioa). Kongresuaren esku ere dago soilik zentsura mozioa eta konfiantza mozioak ezartzea.
- Erreferenduma egiteko baimena ematean, gobernuak egiten du baina kongresuaren baimena beharko du bai edo bai.

Hau ikusita ohartu ahal gara nola, sistema parlamentario desorekatu honetan kongresua senatuarengatik gailentzen da.

Parlamentuaren autonomia:

- Autonomia parlamentariotzat ulertzen da bere funtzioak betetzeko eta honek erregulatzeko eta gestionatzeko Asanblea legegileek duten gaitasunari. Gaitasun horiek Espainiar Konstituzioaren 72.artikuluari aurkitzen dira. Honen oinarrian islatzen da ganberen funtzio ordezkatzailea, beste funtzioekin batera. Honen heinean, ulerkorra da independentzia guztiarekin jardun behar diren funtzioak direla, zeren eta aukerazko irizpideen arabera garatu behar baitira.
- Parlamentuari berari dagokio bere antolamendua eta jarduna arautzea eta baita haren aurrekontuak aurrera aterazea ere. Historikoki parlamentuak erregeekin borrokan egon dira. Horrela prozesu historiko baten bitartez parlamentuak lehen erregearenak ziren botereak bereganatu zituzten. Erdi aroan kokatu behar dugu printzipio honen garrantzia, erregeak oraindik baimena ematen zuenean parlamentua biltzeko, parlamentuen borrokaren poderioz parlamentuak ez zuten baimenik eskatu behar bilkurak egiteko, gaur egungo konstituzio gehienetan, konstituzioak zuzenean ezartzen du ezinbestean bi aldiz bildu behar dela edo automatikoki bildu behar dela konstituzioak ezartzen delako edo berak biltzen delako nahi duenean, parlamentuaren egonkortasuna bermatzeko.
- Autonomia bermatzen zaio Parlamentuari gainerako botere eta erakundeen aurrean babestua izateko; inolako beste erakunderik haren botereak mugatu edo baldintzatu ez dezan. Zertan gauzatzen da parlamentuen autonomia? Gaur egun konstituzio gehienetan, konstituzioak zuzenean ezartzen du ezinbestean bi aldiz bildu behar dela edo automatikoki bildu behar dela konstituzioak ezartzen delako edo berak biltzen delako nahi duenean; hau garrantzitsua da zeren eta historikoki parlamentua biltzen zen erregeak deitzen zuenean, gaur egun aldiz, parlamentuaren bilkurak ez daude erregearen mende. Parlamentuak autonomia izango du bere aurrekontuak onesteko. Parlamentua erabat autonomoa da bere jardunetan eta horretan ezin da inolako botererik sar daitekeena (ezta epaileek ere ezin dute kontrolatu nola egin diren gauzak parlamentuaren barruan).

Parlamentuak ontzat ematen badu emandako lege bat hori ezin da kolokan ipini eta inork ezin dezake esan parlamentuak ez zituela gauzak ongi egin eta parlamentuaren gailentasuna eta autonomia esan nahi zuen ez zegoela inola ere zalantzan ipini parlamentuak emandako erabakiak.

Parlamentuaren autonomia Espainiar Konstituzioan 72 artikulua:

- Ganbera bakoitzak bere Araudia edo Erregelamendua ezartzen du. Ganbera bera da, ganbera horren barneko prozedurak nola izango diren erabakitzen duena. *Interna Corporis Acta*, ganbera horren barnean lan egiteko bete behar diren baldintzak, ganbera barneko arazoak direla erakusten ditu honek, hau da, ganberaren interesekoa da eta epaileek ezin dute esan zer dagoen ondo egina eta zer ez; gaur egun badago eremu bat parlamentuaren barnekoa dela (bakarrik parlamentuaren arazoa), baina muga bat dago gaur egun (lege antolamenduek badute erpinean lege berezi bat; konstituzioa; eta honek lege guztien gainetik kokatzen da, lege guztien baliotasuna baldintzatuta dago konstituzioaren ikuspegitik; lege bat bakarrik zilegia izango da konstituzioaren aurka ez dagoenean; konstituzioa urratsen bada konstituzio auzitegia bai izango du gaitasuna bertan esku hartzeko). Gaur egun epaileak bai izango dira gai ganberaren barnean gertatzen dena kontrolatzeko konstituzioarekin, legearekin... bat datorren ikusteko, nahiz eta oso mugatua egon (KALOrren 42.artikulua) bakarrik sar daiteke eskubide konstituzionalak urratuak izan direnean. Ganbera bakoitzaren erregelamendua legea da? Ganbera bakoitzak bere erregelamendua sortzeko kapazitatea du eta horrek lege indarra du; baina horrek ikuspegi formal batetik zeren eta ganbera baten erregelamenduak ez dira legeak, baina ikuspegi formal horretan jarraituz lege ez izan arren lege indarra dute.

(Espainiako parlamentua bi ganbera ditu; bi ganberetako sistema parlamentarioetan legea onesteko prozeduran gutxienez bi ganberak hartzen dute parte, legea lehenik beheko ganberan eztabaidatu eta bozkatu egiten da, ondoren goiko ganberan behekoan onetsi duten testua aztertu eta onetsi; goiko ganberak behekoak egindako testuari zuzenketak ezartzen ba-dizkio bi aukera izango ditu beheko ganbera: 1-goiko ganberak egindako zuzenketak onartu, berriz eztabaidatu, bozkatu eta EAOn (BOEn) argitaratu edo 2-goiko ganberak egindako zuzenketak beheko ganberak ez onartzea eta azkenean beheko ganberak egindako testua onesten da eta EAOn (BOEn) argitaratzen da.)

Bi ganberetako sistema parlamentario orekatuetan legeak bi ganberetan onetsi behar dira.

Baina zer gertatzen da ganbera bakoitzaren erregelamenduekin? Erregelamendua egin duen ganbera soilik onetsiko du hau eta horregatik ezingo da legea izan; araubide hori ganbera barruan soilik izango du balioa.

Ikuspegi formal batetik badaude legea ez diren araubideak, baina legea izango balira bezala izango dute indarra

Lege indarra izatea esan nahi du araubide batek indarra izango duela legea izango bazen bezala.

Konstituzio auzitegia izango da kontrolatuko duena ganbera bakoitzeko erregelamenduak zilegiak diren edo ez, hau da konstituzioarekin bat datozela edo ez.

Ganbera baten erregelamenduak arautzen badu ganbera horrek, nola lan egin behar duen eta ganberak legeak sortzen baditu, ganbera horretako legeak soilik izango dira baliozkoak lege hori eginda badago erregelamenduak esaten duen moduan.

- Ganbera bakoitzak bere aurrekontuak onesten ditu
- Erregelamenduak osotasunean bozkatu behar dira eta gehiengo absolutua behar da onetsiak izateko (erdia gehi bat) (gehiengo kualifikatua).
- Ganbera bakoitzak aukeratzen du bere Presidentea eta gainerako mahaikideak

- ➔ Parlamentuaren autonomiaren arrazoi historikoak: Parlamentua guztiz babestua egotea. Parlamentuaren erabakiak *Interna corporis acta* gisa; ez zegoen inolako botererik kontrolatu zezakenik ganbera barruan nola egiten ziren gauzak, ondo edo txarto egin, hori parlamentuaren gauza soilik zen.
- ➔ Parlamentuaren autonomiaren egungo helburua: eztabaidarako biltzarra eta hainbat indar politikoen jarduna babestea
- ➔ Gaur egun Parlamentuaren barneko erabakiak ez daude guztiz kontroletik kanpo: KALO-ren 42 art. ➔ babes eskabidea, mugatua bada ere.

2.4. PARLAMENTU ZUZENBIDEAREN ITURBURUAK

Ganberaren Araudia edo Erregelamendua

- Konstituzioak Ganbera bakoitzaren Araudiari uzten dio, neurri handi batean, Ganberaren antolamendua eta jarduna arautzea, legeak sortzeko prozedura barne.

- Legearen balioa duen araua da; honek esan nahi du auzitegi konstituzionala erregelamendu horiek erabiliko dituela ikusteko legeak zilegiak diren edo ez. Lege bat zilegia da konstituzioaren kontra ez doan neurrian; baina bakarrik ez du baldintza hori bete behar, baizik eta konstituzioak ezartzen dituen bideen arabera ere izan behar du (konstituzioak esaten du parlamentuak onesten dituen legeak eta konstituzioak ere esaten du parlamentuaren erregelamendua diona egoki bete behar duela; lege bat zilegia izateko lege horrek ezin du urratu konstituzioak zuzenean diona, baina ere konstituzioak esaten duenez ganbera bakoitzak bere erregelamendua sortuko dituela, konstituzioa egoki bete izateko lege bat egitean lege hori konstituzioaren arabera eta ganberaren erregelamendua arabera eginda egon behar da; legea benetan zilegia izateko konstituzioa esaten duena jarraitu behar du eta onetsiko den ganberan dagoen erregelamendua ere jarraitu behar du.).

→ Konstituzio Auzitegiak ganbera bakoitzaren erregelamenduen konstituzio-tasuna kontrolatuko du.

. Baina ganbera baten erregelamendua ez da lege bat, ez bakarrik formari edo moldeari dagokionez: barrurako eragina du edo gainerako erakundeekin Ganberak dituen harremanetan.

. Legeekin duen lotura ez da hierarkiari dagokiona, baizik eta berezitasun printzipioari dagokiona: Konstituzioak bereizten du Ganberetako Araudiei dagozkien eremuak; eremu horietan gainerako legeek bete behar dute sortu duten Ganberaren Araudietan ezartzen dena.

→ Lege baten konstituzio-kontrakotasuna kontrolatzeko neurria edo irizpidea ere izan daiteke ganbera baten araudia edo erregelamendua nola honek ere konstituzioari men egin behar dio.

. Ganberetako Araudiek konstituzio-kontrakotasun kontrola jaso dezakete

→ KALO-aren 27.2.d artikulua: Ganberen eta Gorte Nagusien erregelamendua 'Konstituzioaren kontrakoak deklaratu daitezke'.

- Araudia interpretatzeko Arauak eta Arau osagarriak

- Araudiek hutsuneak izaten ohi dituzte Ganberetako jarduna arina eta korapilatsua delako. Erregelamenduek ez dute aurre-ikusten ganbera barruan sor daitezkeen egoera guztiak, eztabaida politikoak bizi-bizikiak baitira. Hori dela eta, ustekabeko egoerak sortzen dira eta hauei erantzuna eman behar zaie.

Zuzenbidea fikzioetan eta zuzenbide fikzioen oinarrian zuzenbidea zerbait homogeen eta osatua dela baina errealitatean hutsuneak agertzen zaizkigu eta halako hutsuneak betetzeko badira teknika batzuk; kasu hauetan (mundu politikoan), ganberaren erregelamenduak ganberaren jarduna osotasunean arautu beharko luke, baina horretan hutsuneren bat dagoenean ganbararen organoak zuzenean erregelamendua erabakitzen dute; honela kontraesan batera heltzen gara nola erregelamendua ganbara onetsi behar du baina hutsune bat dagoenean erregelamendu horretan ganbaren organoak konpontzen dute eta ez ganbara osoa.

- Presidenteak eskumena du Araudia interpretatzeko (zalantza bat dagoenean): Presidentearen erabakiak balioa izango dute.
- Araudia osatu behar denean arau osagarriak sor daitezke (hutsune bat dagoenean): Presidenteak, Mahaiaren eta Bozeramaileen Biltzarraren oniritziarekin.

. *Interna corporis acta* edo Konstituzio Auzitegiak kontrola ditzakeen arauak?

- Konstituzio Auzitegiak -118/1988 epaian- ezarri zuen Ganberetako Presidentearen Erabakiaren aurkako eskabideak aurkez daitezkeela, Araudiarekin egin daitezkeen era berean: 'erregelamenduaren zati bihurtzen direlako eta, beraz, haren gainerako edukiaren balio bera hartzen dutelako'
- Konstituziok kontratutasun errekursoaren (eskabidearen) bidez kontrola daitezke
- Konstituzio Auzitegiak (119/1990 epaia):
- Baina horrek ez du esan nahi ezaugarri guztietan berdin daitezkeen arauak direnik.
- Bestela, Erregelamenduak eraberritzeko bide bat izango lirateke, haiek onesteko eta eraberritzeko Konstituzioak (72.1 art.) eskatzen dituen baldintzak bete gabe.
- Bakarrik onartu daitezke –eta Konstituzioarekin bat etorri- Erregelamendua interpretatzeko edo haren hutsuneak betetzeko erabiltzen denean, 'baina ez hura bilakatzeko edo diona zehazteko' erabiltzen direnean

2.5. PARLAMENTUKO KIDEAK

- Parlamentu kideen estatus juridikoa

. Hautakizunak:

- Hautatuak izateko gaitasuna dutenak: hautatuak izan daitezke 18 urtetik gorakoak diren espainiarrak
- Parlamentu kide gisa hautatuak ezin izan daitezkeenak: hauteskunde araubide orokorraren Lege Organikoaren 6. artikuluan zehazten direnak edo hautatu-ezintasunaren egoerak
 - Hauteskundeen aurretik gertatzen den baldintza

Hautatuengan gerta daitezkeen elkartezinak diren egoerak (elkartezintasunak): hautatua izan den parlamentu kidea ezin egon daiteke karguan jarduteko galarazten duten egoeratan; hala balitz, aukeratu behar du egoera horien artean.

Hautatua izatea galarazten duten egoerak

Inor ezin da izan, une berean, Ganbera bietako kide izan, ezta Autonomia Erkidego bateko legebiltzarkidea eta Kongresuan Diputatu izan (Espainiar Konstituzioaren 67.1 artikulua)

Ezin da izan Diputatu edo Senatari eta, une berean, zenbait kargu publikoren jabe

. Hautatua izan eta gero alderdi politikoa, zeinaren zerrendetan hautatua izan baitu parlamentu kidea, legez kanpoko gisa ezarria izan bada tinko edo aldaezin den epai batean, salbu parlamentu kideak nahita, berariaz eta zalantzarik gabe, gaitzesten baditu alderdia legez kanpo gisa jotzeko erabili diren zergatikoak

→ Hauteskundeak eta gero gertatzen diren baldintzak

- Karguaz jabetzea, eginkizunetan eten edo geldiarazita izatea eta kargua galtzea

. Aipamen berezia: Konstituzioari 'men egiteko' zin egitearen edo hitz ematearen beharra Diputatu edo Senatari **karguaz jabetzeko**.

Konstituzio Auzitegiak ezarritako interpretazioa:

. Konstituzioari men egitea hura lege nagusia izatearen ondorioa da.

. Botere publikoetan daudenak eginbide positiboa dute dagozkien eginkizunak betetzeko Konstituzioak ezartzen duenaren arabera.

. Horrek ez du esan nahi harekin atxikimendu ideologiko osoa izan behar denik.

. Leiala izateko eginbidea, beraz, hala ulertu behar da: men egiteko eginbide gisa eta ez barruko atxikimendu baten gisan; hau da, joko politikoaren arauak eta dagoen lege antolamendua onartzen direla eta ez dela saiaturiko haiek aldatzen legezko ez diren bideetatik.

. Konstituzioarekiko leialtasunak ez du galarazten har ezartzen dituen bestelako, edo kontrako, helburu politikoen alde jardutea, kontuan hartuta, bereziki, Konstituzioa eraberritu daitekeela.

Diputatu edo Senatari kargua **galtzen** da:

- Epaille batek erabaki tinko edo aldaezin batean hautaketa edo izendatzea deuseztatzen denean.
- Epaille baten erabaki tinko edo aldaezin batean gaitasun-gabe erabatekoaren edo kargu publikorako bereziaren zigorra ezartzen denean.
- Hil izateagatik edo epaille baten erabaki tinko batean ezgaitasuna ezartzeagatik.
- Agindua amaitzeagatik, agintaldia iraungi delako edo Ganbera itxi delako (alde batera utzirik, Biltzar Iraunkorraren kideek duten aginduen luzapena, Ganbera berria eratzen den arte).
- Ganberaren Mahaiaren aurrean aginduari uko egiteagatik.

Diputatu edo Senatari agindua edo kargua **eteten edo geldiarazten** da:

- Epai tinkoan ezarri den kargu publikorako gaitasun-gabe bereziaren zigorra agintaldiak iraungo duen baino denbora laburrerako bada
- Behin-behineko atxiloaldiaren kasuan

Parlamentu kideen abantailak: bortxaezintasuna (erantzukizunik ez izatea), immunitatea (salbu delitua egiten den momentu berean harrapatua izan ezin da atxilotua izan eta ezin da prozedura judizialik zabaldu ganberaren onespengarik gabe) eta epaitua izateko eskumen berezia (Espainiar Konstituzioaren 71.artikulua).

- Parlamentu kideek zenbait tratamendu bereziak hartzen dituzte, pertsona gisa babestuak izateko.
 - ➔ Haien ordezkari-eginbidea era librean egin dezaketela bermatzeko ezarriak
- Zuzenbidezko Estatuaren sorreran eta gaur egun haien beharra ez da berbera.
 - ➔ Konstituzio Auzitegiak: era murriztuan interpretatuak izan behar dute, beste eskubide edo printzipio batekin kontrajarriak agertzen direnean. Honek esan nahi du bakarrik abantailak dutela eragina parlamentarien betekizunak ezinbestez eskatzen duenean. Abantailak bakarrik babesten dute parlamentuko kide bati parlamentuko kideak egin behar duena egoki egin dezan.

Abantaila hauen helburua da bermatzea ganbera bilduko dela eta ganberak dituen botereak eta eskumenak egoki erabiliko direla. Ganberaren barneko lana libre izatea.

Bortxaezintasuna: parlamentuko kideek beren eginkizunetan dihardutela adierazitako iritziengatik eta bozkengatik ezin dela inolako erantzukizunik eskatu.

- Mamizko izaera duen abantaila; eduki bat babesten du mugiezina dela, beraz parlamentuko kideek ganberaren barnean ematen diren iritziengatik (beren eginkizunetan diharduela), ganberaren lanetan dagoela eta parlamentari gisa egiten ari den zerbait egiten duen bitartean, eginkizun horietan babestuta dago.
- Lege-erantzukizunik eza bermatzen die parlamentu kideei haien eginbideetan adierazitako iritziengatik: 'Parlamentuko jardueretan eginak, eta, salbuespen gisan, Ganberen jardueretatik kanpo, egintza parlamentario batean esandakoaren hitzez-hitzezko errepikatzea denean' (**Konstituzio Auzitegiaren 243/1988 epaia**); hau kontuan hartzekoa da zeren eta bortxaezintasunak parlamentuko kideak babesten ditu parlamentuaren barnean egindakoagatik, baita ere gizarteari parlamentu horren barruan esandakoa jakinarazteagatik.

Bortxaezintasunaren mugak:

- Ez du babesten parlamentu kideek egiten duten edozein egintza, baizik eta bakarrik haien iritzi edo nahiaren adierazpenak, haien barne direla karguaren eginbidean emandako bozkak.
- Haren helburua izanik parlamentuan eztabaida eta erabaki librea babestea, ez ditu babesten parlamentu kideek egiten dituzten eragin politikoa duten gainerako egintzak.

Immunitatea

- Izaera formala duen abantaila: Ganberaren osaeraren eta jardueraren manipulazio politikoa ekiditea. Konstituzio Auzitegiak ia hustu egin du immunitatearen abantailak dituen eremuak, berme formal soila bilakatuz. Immunitateak ez du babesten parlamentukoko kideak prozesatuak ez izatea. Bi motako edukiak ditu: 1- Parlamentuko kide bat ezin da atxilotua izan (salbu delitu flagrante bat egiten harrapatzen dutenean) eta 2- ezin dira auzipetuak izan, dagokion ganberak aurretiaz baimena eman ezean.
- Aginduaren jabe diren bitartean, Diputatu eta Senatariak immunitatea izango dute eta ezin atxilotuko dira ageri-ageriko delituaren kasuan baino (delitu gorriak).
- Eta ezingo dira inkulpatu (akusatu) ezta ere ez dira auzipetuko, dagokion ganberak aurretiaz baimena eman ezean.
- Bakarrik babesten du parlamentuko kidearen askatasuna baldintzatzen duten epaiketen aurrean: epaiketa penalen aurrean. Izan ere, epaiketa zibilek oro har, ez dute parlamentarien lana baldintzatzen.

- Agintaldia irauten duen bitartean.
- Ganberaren baimena (baimen eskaria): epaileak edo auzitegiak Ganberari baimena eskatu behar dio haren kide baten kontra ekiteko auzi penal batean.
- Ganberaren baimenak gauzatzen du immunitateak dakarren bermea. Horregatik esaten genuen berme formal hutsa dela.
- Ganberak kontuan har dezake, bakarrik, auziperatzearen balizko helburu politikoa, Ganberaren osaera eta jarduna baldintzatu nahian: iritzi politikoa.
- Ganberen erabakiak zehaztu behar ditu, eskariari uko egiten badio, baimenik ez emateko arrazoibideak; Konstituzio Auzitegiak kontrola dezake arrazoibideak bidezko eta koherente diren ala ez.
- Interpretazio honen eraginez, praktikan, auziperatzeko baimena eskatzearen beharra ia ezerezean gelditu da, Ganberak ez baitu benetako gaitasunik hura ukatzeko.
- Auziperatzeko baimenaren eskaria arbuiatzen bada, auzia eteten edo geldiarazten da, parlamentu kidearen egoera aldatzen den arte.

Gaur egun eduki eta forma ahula du, gaur egun oso zaila da asmatzea parlamentuarekin akzio batengatik parlamentuaren funtzionamendua baldintzatzeko duela.

Parlamentuan ordezkariak direnak, parlamentu barruan beren eginkizunak aurrera eramateko aske dira nahi duten iritzia eta nahi duten botoa emateko inolako ondorio barik. Ezin da parlamentuko kide batek auzipetu dagokion ganberak baimena ematen ez badio epaile edo auzitegiari. Gaur egun (immunitatea), berme horrek oso eduki ahula du, kontuan izanda berme horrek duen helburua ia ezerezean gelditu da, oso zaila delako jakitea parlamentu kide batek auzipetua izango bada ideologiagatik.

Europar batasuneko zuzenbidean baita ere oso garrantzitsua da zuzentarau, erregelamendu... baten kasuan zilegiak izateko erabaki eta arau guztiek oinarrian arrazoibidetuak izan behar dira; epailek (botere judiziala) egiten dute hau, legearen arabera ikusi baliozkoa bada, erakundeek duten helburua legea sortzean erakutsi behar dute.

2.6. PARLAMENTU TALDEAK

- Talde parlamentarioak zer diren? Talde parlamentarioak dira indar politiko batek Ganbera batean lortu dituen ordezkarien bilkura, berezko egituraketa hartzen duena Ganberaren jardunean aritzeko. Talde parlamentarioak osatzen dira alderdi politikoaren arabera; salbuespena: talde mistoa. Zergatik dira talde parlamentarioak hain garrantzitsuak gaur egungo parlamentarismoan? Parlamentuaren arrazionalizazioa dela eta, parlamentuaren barneko lana bideratzeko, beraz parlamentarismo arrazionalizatuan talde parlamentarioak dira protagonismo osoa lortzen dutenak, honen kaltetuak parlamentari indibidualak dira, eztabaida talde parlamentarioen artean murgiltzen delako, lege proposamen bat egiteko talde parlamentario batek gauzatu behar du proposamena... horregatik Espainiar estatuko parlamentua hain bizitasuna gutxi du. Talde parlamentarioek disziplina erabiltzen dute (salbuespenak kenduta) talde parlamentarioak ordezkatzeko duten guztiek, talde parlamentarioak esaten duenaren arabera bozkatzeko.

Gaur egungo sistema parlamentarioetan talde parlamentarioak garrantzi handia dute, eta parlamentuko lana bideratzen dutenak dira, baina sistema batzuek zurrungoak edo malguagoak dira, zurrungoak izango dira zeintzuk gai gutxi talde parlamentarioaren iritzitik kanpo garatzen direnak.

. Parlamentu-taldearen eta alderdi politikoaren arteko lotura zuzena: alderdi politikoaren baliabidea Ganberaren barnean.

. Ganberaren barneko lan politikoak talde parlamentarioen bidez gauzatzen da. Espainiar estatuko talde parlamentarioak oso zurrungoak dira, oso gauza gutxi dira talde parlamentarioetatik kanpo gelditzen direnak.

Diru ia ia guztia banatzen da talde parlamentarioen artean, beraz erabakikorra da talde parlamentarioa izatea edo ez izatea.

→ Alderdi politikoek lan parlamentarioaren kontrola bermatzen dute

. Ganberetan gauzatu den praktika iruzurrezkoa alderdi politiko txikiek osa zitezaketen talde parlamentarioak.

Talde parlamentarioa sortu ahal izateko baldintzak (Kongresuko Erregelamenduaren 23.artikulua eta hurrengoak):

. 15 diputatu gutxienez dituzten talde politikoek talde parlamentarioa sor ditezakete.

. Nahiz eta gutxienezko kopuru hori ez izan, indar bateko edo gehiagoko Diputatuak, gutxienez 5 direnean, era berean, bozken %15a eskuratu badituzte hautagaiak aurkeztu dituzten barrutietan edo %5^a Estatu osoan. Kopuru hori ez duten indarrak, 5 diputatu lortzerakoan -eurek bakarrik edo beste indar politiko batzuekin- hautatuak izan diren barrutian bozken %15a lortuz, edo estatu mailan botoen %5 eskuratzuz, talde parlamentarioa osatzen da.

Honen inguruan, badago eztabaida garrantzitsu bat: une batean baldintza hau bete ez duen alderdi politikoari talde parlamentarioa osatzeko baimena eman zitzaiolako. Horrela, gaur egun, alderdi politiko batzuk hori eskatzen dute, legeak kontrakoa izan arren. Normalean, baldintza hau aplikatzen zaio barruti zehatz batean soilik aurkezten den (EAJ; adibidez) edo estatu mailan bozka asko baina ordezkari gutxi duten alderdiei (IU; adibidez). Batzuetan, 5 parlamentarien kopuruari ailegatzeko, alderdiek eta parlamentu-taldeek euren artean ordezkariak partekatzen dituzte. Askotan, ordea, ordezkari hori jatorrizko taldera bueltatzen da. Ganberak baldintza honetan agertu daitezkeen arazoen inguruko erabaki ezberdinak har ditzake.

. Ezin dute talde parlamentario bereizitakorik sortu alderdi bereko kideak direnek

Une desberdinetan arau hauek ez dira modu berean interpretatuak izan; bide horretatik ganberak erakutsi duena izan da momentuaren arabera ganberak interpretazio zurrun edo malguago bat egin duela.

. Ezin dute talde parlamentario bereizitakorik sortu alderdi bereko kideak direnek. Lehendabiziko Kongresuan, juxtu Konstituzioa onartu eta gero, Kataluniako Alderdi Sozialistak independenteki parlamentu-talde bat sortu nahiko dute. Helburu hori alboratzeko erregelamenduan xedapen hau agertuko da, alderdiak ganberaren lan guztietan ordezkari/presentzia handiagoa izan ez dezan. Orain, arau honek Podemosen errealitate politikoarekin topo egiten du, Podemosek izaera ezberdineko koalizioekin -indar politiko heterogeneoz osaturik- aurkeztu baitu bere burua. Kongresuko mahaiak horrela interpretatu du: Koalizioa orokorra baldin bada, alderdiaren kide ez direnek, bigarren baldintza betetzekotan, parlamentu-talde bereziak osa dezakete. Bestalde, Podemosekoek aurkezten baldin badute euren burua eta barruti zehatz batzuetan beste indar batzuekin bat egiten badute, azken hauen ordezkariak parlamentu-talde berean egon beharko liriateke. Ganberak egindako interpretazioa, bestalde, ez da izan koherente eta uniforme, garaiko interes politikoaren zerbitzura egon baita.

. Ezin dute talde parlamentario bereizitakorik sortu hauteskundeetara aurkeztu ez diren indar politikoetako kideak. Honetan oinarriz eta erreko adibidea erabiliz, koalizioetako kideak euren taldea osa dezakete hauteskundeetara zuzenean aurkeztu direlako, baina horretan Ganberaren Epaimahaiak ematen duen interpretazioa da erabakikorra.

ESANDAKO GUZTIAREN HARIRA...

- Honetan bi motatako errealitate gauza daiteke: Kongresuko mahaiak interpretazio malgua izatea eta talde parlamentario bat izateko baldintzak betetzen ez duen alderdiari hori egiteko aukera emateak, inork ezin dituela erabaki horiek aurkaratu. Bestalde, interpretazio zurruna egiten baldin badu, kaltetutako indar politikoak ezin izango ditu aurrekari horiek erabili bere burua defendatzeko, azkenean erregelamendua aplikatuko delako, ezinbestean, KA-k hori egitera beharturik baitago, LEGEA GAIZKI APLIKATUTAKO EGOERAK EZIN DIRELAKO AURREKARI LEGALAK IZAN.

Talde parlamentario batetik beste batetara alda daiteke ordezkari bat bakarrik bilkura-aldi bakoitzeko lehenbiziko bost egunetan. Arau hau ordezkarien mailegurako erabili izan da oinarri gisa. (EAJ/CIU). Halere, bere jatorrizko xedea “transfugo” direlakoei mugak ezartzea izango da.

- Legealdian zehar talde parlamentario batean taldea sortzeko eskatzen den kideen kopuruaren erdia baino kide gutxiagorekin gelditzen denean, taldea desegingo da. Beraz, talde parlamentarioa sortzeko eta hori mantentzeko eskatzen den ordezkari kopurua ez da berdina.

Talde parlamentarioa osatzen da 5 kideekin baina 3-4 kideekin gelditzen bada ez da automatikoki desegiten. Ondorioz, ordezkariak euren jatorrizko parlamentu-taldera bueltatzean, beste taldea ez da desagertzen. Oinarrian, arau honek badu zentzuri bi baldintza betetzen direnean: talde horrek, berez, baldintza guztiak betetzen ditu eta gorabeherak egonda legealdian zehar, taldea babestu nahi izatea.

Era berean, parlamentu-talde horien garrantzia ondo ulertzeko bere eginbideei begiratu behar diegu, protagonizatu edo, hobeto esanda, monopolizatu egiten baitute Ganberaren lana.

. Trantsizioan, alegia- alderdi politikoaren ahuldadeei irtenbidea emateko helburuarekin transmititu zaie eginbehar horiek, baina, egun, erabat kolonizatu egin dituzten instituzioak, baita bere jardura kontrolatzen dituzten erakundeak ere (Konstituzio Auzitegia). 2.7.1- Ikus ditzagun bere zereginak:

- 1) Ganberako karguak izendatzea: Batzordeetako kideak, Biltzar Iraunkorrekoak eta Ganberako karguak -praktikan, beraz, erregelamenduaren interpretazioa eta zuzendaritza talde parlamentarioen eskutan.
- 2) Legeak egiteko prozedura parte hartze handia. Taldeak dira osoko zuzenketa (enmienda a la totalidad) -Gobernuak lege-proiektu bat aurkeztean, ganberak egiten duen lehenengo bozka. Bertan ez da legearen edukia eztabaidatzen, proiektuaren bideragarritasuna baino-aurkez dezaketen bakarrak. Ez hori bakarrik, gauza bera egiten dute lege-proiektuen “toma en consideración” delakoarekin. Era berean, parlamentuko kide batek taldeko babes behar du lege-proiektu bati zuzenketa edo lege-proposamen (lege-proiektu Gobernuak aurkeztutakoak dira) bat aurkezteko. Gainera, bakarrik taldeek defenda dezakete boto partikularrak zuzenketa osoko bilkuran (pleno). Hau da, Batzordean bozketa galdu duten zuzenketa osoko bilkurara pasatuko dira soilik talde parlamentarioek hala nahi izatekotan (hau helburu politiko argia du: hautesleen aurrean publizitatea ematea botoak eskuratzeko).

Ekimen legegilean zuzenketa egiten dira Batzordean. Zuzenketa batzuk onartu eta beste batzuk arbuiatzen dira. Arbuiatzen direnen artean boto partikularra jasotzen dute batzuk. Osoko bilkuran testu osoa eta boto partikularrak izandako zuzenketa onartu egiten dira testu definitiboa osatu baino lehen.

Ondorioz, ikusten dugu bai eztabaidan bai, gobernuaren kontrolean protagonismo osoa dutela. Honen haritik zera esan behar dugu: Ganberaren lanetan jarduteko, ezinbestean parlamentariak talde batean egon behar dira. Horregatik, talde mixtoa osatzen da, taldea osatzea lortu ez duten alderdiek partaidetza izan dezaten. Honek duen arazo nagusia hurrengoa da: zatitu behar dute bere eginkizunak betetzeko baliabide guztiak (denbora, dirua...) alderdi anitzek parte hartzen dutenean. Bestalde, talde mixtoan alderdi bat denean nagusi ere, bere baliabideak murriztearen alde jokatzen da, parlamentu-talde baten guztiz parekoa ez izateko.

2.6.1- TALDE PARLAMENTARIOEN IZAERA JURIDIKOA

Hasiera-hasieratik alderdi politikoen eta parlamentu-taldearen artean paralelismoa egin dugu. Bestalde, baieztapen horri zehaztapenak egin behar zaizkio, hauteskundeetan alderdi politiko zehatzak ez ezik, beste motatako indar politikoak aurkezten baitira ere -plataformak...-.

Halere, normalean talde parlamentarioa alderdien tresna parlamentario bezala ulertzen ohi dira. Adituen artean, aitzitik, parlamentu-taldeari izaera juridiko propio aitortzen dion joera existitzen da. Hau da, alderdi politikotik berezita dagoen pertsona juridikoa dela baieztatzen dutenak existitzen dira. Honek sor ditzakeen arazoaren aurrean gauza bat argi dago: talde parlamentarioek izaera juridiko berezia dute, bere burua pertsona juridiko bezala sumatzea ahalbidetzen diona, baina, aldi berean, alderdien eta Ganberaren gobernurako jarduerarako erabiltzen den baliabidea da, era berean. Horrek bi ondorio ditu:

- Alderdi politiko batetik botatzen denean ordezkari bat, horrek ez du talde parlamentarioa utzi behar.
- Alderdi bat legez kanpo uzten denean, horrek ez du, printzipioz, talde parlamentarioa automatikoki desegiten. Eztabaida teorikoa gorpuztu zen horren inguruan Herri Batasuna ilegalizatu zenean. Batzuk taldea desegitearen alde egingo dute, talde parlamentario horren oinarrian alderdi politiko bat baitago.

2.7.GORTE NAGUSIEN ANTOLAMENDUA

2.7.1.- GANBEREN GOBERNU ETA LAN PARLAMENTARIOA BIDERATZEKO ORGANOAK

Hauen artean berezko garrantzia dute Ganberak berak dituen organoak:

- **Ganberaren presidentea.** Ganberaren agintari gorena da, Ganbera berak hautatua; ondorioz, bere nahia adierazten du. Horrez gain, Ganbera babesten eta defendatzen du. Gobernu buruzagi izateko Erregeak egiten duen eskaintza berresten du, baita haren izendapena ere. Halere, bereziki, hurrengo da bere eginkizunik garrantzitsua: lan parlamentarioa eta eztabaidak zuzentzea. Horiek zuzentzeko erregelamendua interpretatu eta aplikatzen du, berez Ganberaren disziplina bermatuz. Hori bera bakarrik egiten du, mahiaren gainontzeko kideekin kontsultatu gabe, protagonismo osoz. Halere, ez du bakarrik diharduten, Ganberaren Mahaiarekin eta beste zenbait organoekin batera egiten du.
- **Ganberaren Mahaia.** Ganberaren zuzendaritza da eta osatzen dute: Presidenteak, Presidenteordeak eta Idazkariak. Ondorioz, organo kolegiatua/bildua da, kideak talde parlamentarioek hautatzen dituztela (ez dago inpartzial izateko nahimen espresurik, baina kideek alderdiaren disziplina albora dezakete). Presidenteak bezala, lan parlamentarioa antolatzen eta bideratzen du, ekimen guztiak "kalifikatuz": aztertzen du egokia den ala ez eta, horren arabera, bideragarria den ala ez. Ez du izan behar egokitasun politikoari buruzko erabaki bat, baizik eta bideragarritasun formalari buruzko erabakia. Era berean, ganberaren barneko administrazioa burutzen du.
- **Bozeramaileen Bilkura:** talde parlamentario guztien ordezkariak, Ganberako Mahaiko ordezkariekin (Presidenteak barne) eta, kasu, Gobernuko ordezkaria.

Ganberako zuzendaritza eta talde parlamentarioen biltzeko organoa lan parlamentarioa eta eztabaidak antolatzeko eta bideratzeko Inportantea da eztabaidak eta lana egoki bideratzea, talde politikoen esku-hartzearekin.

Aurreko legealdi txiki horretan bi hauteskunde orokor artean eman zena, gobernuaren eta kongresuaren arteko lehia eman zen eta horren barnean kongresuak Konstituzio Auzitegiaren aurrera eraman zuen gatazka eta azken egun hauetan Konstituzio Auzitegia onartu du, hauek izan ziren gatazkak: gobernuko kideak kontrolatzearen arabera gobernuak esaten zuen "jarduten" zegoelako ez zituela azalpenik emateko beharra; gobernuak esaten duenean kongresuak duen ekimen batean ekimen horrek eragina badu aurrekontuetan, gobernuak badu lehentasun bat galarazteko kongresuak eztabaida bezala ekimenen bat aurrekontuetan eragina badu.

Talde parlamentarioak ia erabat baldintzatzen dute ganberaren barnean erabakitzen diren gauzarik garrantzitsuenak; gauza garrantzitsuenetan

mahiak ez ditu erabakiak bere kabuz hartzen zeren eta, talde parlamentarioen onespina behar dute.

2.7.2. GANBEREN JARDUERARAKO ETA EZTABAIDARAKO ORGANOAK

Espainiar Konstituzioaren 75.1 artikulua: 'Osoko bilkuretan nahiz batzordeka jardungo dute Ganberak'.

- **Osoko Bilkura:** Ganbera osatzen duten kide guztien bilkura. Ganbera baten organorik inportanteena, hari dagozkion eginbideak gauzaten dituenak, salbuespenak salbuespen. Ganberaren nahia adierazten du. Oro har, Ganberaz mintzatzeko garenean Osoko bilkuraz mintzatzeko ohi gara. Presidenteak egiten du osoko bilkurarako deia. Kameraren kide guztiak hartzen dute parte osoko bilkura batean.
Erabakiak hartu ahal izateko Ganberaren kide gehienak egon behar dute (erdia eta bat) bilkuran: *bertan izatearen quoruma*.
→ Bi baldintza ezinbestekoak (deialdia eta *quoruma*). Legezkoa izango da organo bat biltzen denean bi baldintza hauek betetzen dituztenean eta hauek bi betetzean zilegizkoa izango da bertan onartutakoa. Deialdia egoki egina eta egoki zehaztuta egon behar da bilkura horretan eztabaidatuko diren gaiak. Gai bat legearen aldetik eztabaidatu ahal izateko (deialdiaren kanpo dagoena) quorum-a egon behar du hau da kide gehienak egon behar dutela (erdia eta bat) edo bestela badaude salbuespen gisa bide batzuk berme zorrotz batzuekin deialdian ez dagoen gai bati buruz eztabaidatu ahal izatea eta eztabaidatua izatea esan nahi du horri buruz erabakiak har daitekeela. Erabaki bat hartzeko nahikoa da erabakiaren alde baiezko bozka ezezko baino gehiago izateko, salbuespenak gehiago kualifikatuak: gehiago absolutua (erdia eta bat), $\frac{3}{5}$ gehiengoa eta $\frac{2}{3}$ gehiengoa
- **Batzordeak:** Ganberaren organo bilduak dira parlamentu kide kopuru mugatu eta txiki bat osatuak, talde bakoitzak dituen parlamentario-kopuruaren arabera.
Eginbidea: Osoko bilkuraren lana prestatzea eta arintzea
Kasu bakanetan, Osoko bilkuraren eginbidea hartzen dute bere gain: legegintza ahalmen osoa eskura dezakete (Espainiar Konstituzioaren 75.2 artikulua) eta Gobernuaren kontrolatzeko jardueran ere esku har dezakete.
Osoko bilkuraren organo delegatuak dira.
Batzordetan bideratuko dira orobat osoko bilkura batean eztabaidatu eta onartuko diren gai guztiak. Osoko bilkura batean mintzatu aurretik eta behin behineko erabakia hartuko da batzordean.
Batzordeak lan gehiena bideratzen dutenak dira, osoko bilkura prestatzen dituzten organoak dira. Osoko bilkuran dena eztabaidatu ostean batzordetan lana arintzen da, lege proposamenak eztabaidatzen direnean zuzenketa proposamenen inguruan eztabaidatzea eta ikusten da zer nolako adostasunak lor daitezke alderdien artean eta horrela osoko bilkuran bakarrik erabaki gabe edo zabalik geratu diren gauzen arabera eztabaidatzen da eta testu osoa bozkatzen da.

Batzordeak ezin dituzte erabakiak hartu baina badago salbuespen bat, osoko bilkurak delegatu dezake batzorde bati lege baten azken testua onartzea, legegintza ahalmen osoa har dezake, bakarrik kasu urri batzuetan gertatzen da hau edo premia handia dagoenean edo oso gai teknikoa denean. EZ AHAZTU osoko bilkurak erabaki behar du batzorde baten eskuetan ustea legegintza ahalmen osoa.

Batzordeek bietan lan egingo dute, lege proposamenak eztabaidatzea eta gobernuaren jarduna kontrolatzea.

Gobernuko presidentea edo lehendakariak berak soilik sinatuta egiten dituen dekretuak bi izango dira:

- 1- Gobernuak nortzuk osatuko duten izendatzea eta
- 2- Gobernuaren barneko egitura zein izango den adierazten duen dekretua

Talde parlamentarioek erabakitzen dute Batzorde bakoitzean haien ordezkariak nortzuk diren, Mahaiak zehaztutako kopuruaren arabera Batzorde mota bi daude: **Batzorde iraunkorrak** (legegintzaldi osoan iraungo dutenak) eta **batzorde ez iraunkorrak** (helburu zehatz batetarako eratuak direnak).

Batzorde **legegileak** eta **ez legegileak**

Batzorde legegile iraunkorrak (Espainiar Konstituzioaren 75.2.artikulua): legegintza-prozeduran esku-hartzen dutenak. Gobernuaren antolaketa berbera izaten dute. Lege proiektuak eta lege proposamenak eztabaidatzen eta bideratzen dituzte, azkenik Osoko Bilkurak eztabaida eta bozka ditzan. Eginkizun biak bideratzen dira batzorde hauen bidez.

Batzorde legegile iraunkorrek legegintza ahalmen osoa jaso dezakete, osoko bilkurak esku-ordezten edo besterentzen badie (aukera horretatik kanpo gelditzen dira Konstituzioaren erreforma, nazioarteko gaiak, lege organikoak eta oinarri-legeak eta Estatuaren aurrekontu orokorrak).

Legegintza-ahalmen osoa ematen dietenean, Osoko bilkurak, edonola ere, 'noiznahi eska dezake berak eztabaidatzea eta bozkatzea edozein lege-proiektu nahiz lege-proposamen' (Espainiar Konstituzioaren 75.2 artikulua). Era berean, Osoko bilkurak erabaki behar du Senatuak lege proiektu edo proposamen bati betoa jartzen dionean ere.

Parlamentuaren zereginak dira gobernuaren kontrolatzea eta bere jarduna bultzatzea eta bideratzea, hori dela eta logikoa izango litzateke parlamentuaren zeregin hauek eraginkorragoak izateko baldin eta badago ministro bat edo sailburu bat ekonomia arloaz arduratzen dena logikoena izango litzateke horren inguruan parlamentuko batzorde bat izatea. Batzordeen egituraketa gobernuak hartzen duen egituraketaren antzekoa izan ohi da.

- **Batzorde iraunkor ez-legegileak:** Legegintzaldi osoan irauten dutenak, baina ez dute eskurik hartzen prozedura legegilean (parlamentu kideen estatutuari buruzkoa, izendapenei buruzkoa, elkarezintasun-egoerei buruzkoa...) Osoko bilkurak sortu ditzake bestelakoak eta baita legeetan ere ezar daitezke halakoak.
- **Bestelako Batzordeak:** Ganbera bien arteko Batzorde Mixtoak (Konstituzioan ezarriak edo legeetan ezarriak), Ikerketa-Batzordeak (ez iraunkor eta ez legegileak) (Ganbera bakarrekoak edo Mixtoak).

Ganberaren eten-gabetasuna bermatzeko organoa: Diputazio edo Batzorde Iraunkorra (Espainiar Konstituzioaren 78 artikulua)

Ganbera bakoitzean, Diputazio Iraunkor bat, gutxienez 21 kideez osatua, talde parlamentarioen kopuruaren arabera. Parlamentuak dituen botereak parlamentuak mantentzeko. Diputazio iraunkorra da ganbera bakoitzaren barnean sortzen den organo bat, ganberaren barnean talde parlamentario bakoitzak duen kopuruaren arabera, modu proportzional batean, ganberaren barneko "ganbera" txiki bat, ganbera bildurik ez dagoenean ganberaren botereak eta eginkizunak hartzeko gai izango dena, honekin lortzen da ganberak bildurik ez daudenean beti egotea jardunean. Ganberari dagozkion botereak gauzatzeko gaitasuna izatea. Diputazio iraunkorra bere horretan egongo da eta ganberaren eginkizunak bilduko ditu baita ere hauteskunde berritarako deia egin delako ganbera berriak eratu arte eta ganberari dagozkion botereak erabiliko ditu, helburua: parlamentua inoiz ere desagertua izatea sistema parlamentario batean. Diputazio iraunkorraren kideek uste badute zerbait oso garrantzitsua gertatu dela eta.

Ganberaren presidentea dute buru.

Xedea: Parlamentuaren eten-gabetasuna adieraztea. Ganberak bildurik ez daudenean (oporraldietan) edota itxita daudenean (legegintzaldia amaitu delako edo Ganberak itxiak izan direlako).

Eginkizunak:

- Ganberaren ez-ohiko batzarrak eskatzea. Diputazio iraunkorraren kideek uste badute zerbait oso garrantzitsua gertatu dela eta hobeagoa izango zela osoko bilkurara deitzea bertan erabakitzeko, hori egiteko ahalmena izango dute.
- Ganberari dagozkion eginbideak, Ganbera itxirik dagoenean edo agintaldia amaitu denean (kontuan hartuta 86. eta 116.artikuluak).
86.artikuluan (lege dekretua; hau jakiten ez duena ez du gainditzen)
116.artikuluan (salbuespen egoerak)
- Ganberaren botereak zaintzea, bildurik ez dagoenean (oporraldietan).

- Parlamentuko lanaren antolatzea

. Ganberaren batzarrak

Presidenteari dagokio batzarrerako deia egitea (haren kabuz, bi talde parlamentarioek edo Ganberaren bosteneko batek eskatuta Kongresuaren kasuan).

Erabakiak hartu ahal izateko Ganberak egoki deitua izan behar du eta kide gehienak han izan behar dute; bestela, Ganbera ez da lotetsia izango erabakitakoarekin.

Eguneko gai-zerrenda Presidenteak zehazten du, baina Bozerramaileen Batzarrak edo Mahaiak bat datozela. Ganberak alda dezake.

Batzar-garaiak eta oporraldiak; ezohiko batzarrak (73. artikulua).

Bi mota: gobernuak egiten duen lege-proiektua edo ganberako kideek edo kideren batek egiten duten lege proposamena.

. Bozkatzea

Erabakiak hartzeko, bertan dauden kideen gehienek alde bozkatu behar dute (Espainiar Konstituzioaren 79.2 artikulua).

Hainbat motako gehiengoak: gehiengo soilak edo sinpleak, daudenen gehiengoak, gehiengo absolutua edo erabatekoa, gehiengo bereziak ($2/3$ eko gehiengoak; $3/5$ eko gehiengoak).

Bozka pertsonala eta beste inoren esku ezin utzi daitekeena (Espainiar Konstituzioaren 79.3 artikulua)

2.8.GORTE NAGUSIEN EGINBIDEAK EDO BETEKIZUNAK

. Legegintza betekizuna (edo ahalmena)

Parlamentuen jatorrizko betekizuna

Alderdi politikoek menderatutako Parlamentua eta legegintzaren ezaugarriak: jarrera politikoen arteko eztabaida publikoa

. Legeak sortzeko prozedura

- Ekimen-aldia

- Gobernuaren ekimena (Espainiar Konstituzioaren 87.1.artikulua): lege proiektuak.
- Parlamentu kideen ekimena: lege proposamenak (15 Diputatuk edo talde parlamentarioek).
- Autonomia Erkidegoetako ekimena.
- Herri ekimena

- Bideratze-aldia

- Kongresuaren nagusitasuna edo lehentasuna.
- Bideratua izateko onestea; salbuespenak: Gobernuak aurkeztutako lege-proiektuak eta Senatuak onetsitakoak. Gobernuaren alde aurreko iritzia eta uko egiteko ahalmena aurrekontuetan eragina badu (30 egun).
- Lege proiektuen kontrako osoko zuzenketa; Osoko bilkurak bozkatu behar dituenak.
- Bideratua izateko onetsia bada dagokion Batzordera doa Zuzenketak aurkezteko epea Batzordeko txostengilea Batzordearen txostena → Osoko bilkuran erabaki

- Senatuaren eginkizuna

Gure bi ganberetako sistema parlamentario desorekatuan, Ganberak ez dute ahalmen bera. Orobat, ezberdintasun nabariak daude bien artean. Adibidez, Gobernuko presidentea aukeratzekoan, soilik beheko ganberak jardungo du. Era berean, goiko ganberak Gobernuko jarduna kontrolatu arren, ezin du hura desegin, beheko ganberak konfiantza- eta mozio-zentsuren bidez egiten duten legez. Bestalde, ezberdintasun nabariena legeak egiteko prozesuan aurkitzen dugu. Goiko Ganbarak aurkezten zaion testu legalaren aurrean hiru aukera ditu:

- Testua zuzenketarik gabe onartu (ez du egingo, ezertarako balio ez duela baieztatzea litzatekelako).
- Betoa ezar diezaioke, Kongresuak igorritako testuari. Horretarako, Senatuak gehiengo absolutua behar du. Halere, Kongresuak gehiengo absolutuz betoa alboratu dezake edo, 2 hilabete eta gero, gehiengo soilaz ere gailendu dezake oztopo hori. Beraz, oso zaila da Kongresuak lehendabiziko aukeran onartutako testua, berriro onarpena eta indarra ez lortzea -honetan dago, beraz, desoreka-. Dena den, gerta liteke, adibidez, egungo testuinguru politiko nahasi eta ezegonkorrean.
- Zuzenketak egin diezazkioke. Kongresuak onetsi edo gaitzetsiko ditu gehiengo soilaz. Beraz, Senatuak duen funtzio hau Kongresuak onartutako testua hobetzeko aukera litzateke; hots, premiazko/arinetazko egoeretan zein presio politikoko testuinguruan egindako testuaren inguruan berriro eztabaida zabaltzeko eta hobetzeko abagunea da. Horregatik, askotan Kongresuak onartzen du, testua onarpen politiko zabalagoa hartzen duelarik. Honek erakusten du Senatuak ez dela, Konstituzioa esan legez, lurraldeak ordezkatzeko duen ganbera, eztabaida politiko lasaiagoari bide ematen diona baino.

Horietako erabakiren bat hartzeko, bi hilabeteko epea du testua aurkezteko, (20 egun premiazko prozeduretan)

Aukerak:

- Osoko eztabaida batean betoa ezar diezaioke Kongresuak onetsitako testuari; gehiengo absolutua → Kongresuak uko egin diezaioke betoari gehiengo absolutuaren bidez edo, bi hilabete igaro eta gero, gehiengo soilaz.
- Testua zuzendu → Kongresuak onetsi edo gaitzetsiko ditu gehiengo soilaren bidez.

Amaiera:

- Erregeak ber-onetsiko du, hamabost eguneko epean, iragarriak izango dira (argitaratuak Aldizkari Ofizialean); Gobernuko Presidenteak berretsi edo ber-izenpetuko du.

- Legeak sortzeko prozedura bereziak

- Legea onesteko ahalmena Batzorde baten esku uzten denean.
- Irakurketa bakarreko prozedura (Batzordean bideratua izan gabe, osoko bilkuran zuzenean eztabaidatua eta bozkatua **‘proiektuaren edo proposamenaren izaeraren edo haren erraztasunaren arabera halakoa egoki denean’**. Normalean artikulua bakarreko legeak dira, kontzertuaren legea eta kupoaren legea, adibidez, artikulua bakarra baina artikulua horren barnean badago lege oso luze eta konplexu bat.
- Urgentziazko –edo presazko- prozedura.

. Aurrekontuei buruzko betekizuna (134 art.)

- Parlamentuak urtero onetsi behar du Aurrekontuen Legea (Estatuaren sarrerak eta gastuak biltzen ditu eta baita horiek bideratzeko arauak). Sarreren kopuru osoa gastuen kopuruarekin bat egin behar du.

→ Aurrekontuen legeak gaitasuna ematen dio Gobernuari gastuak egiteko. Horren bidez, Gobernuak politika ekonomikoa zuzentzen du. Aurrekontuen legea urteko legerik inportanteena da zeren eta, horretan islatzen da gobernu batek egin nahi duen politika

- Urtean urtekoak dira eta dokumentu bakar batean izan behar dute bilduak (Aurrekontuen batasuna). Aukera izateko dena batera ikusi ahal izateko.
- Gobernuak prestatzen du Aurrekontuen proiektua. Honetan ez dago parlamentuko kideen ekimen posiblerik.

→ Gobernuak duen programaren tresna dira Aurrekontuak eta haien onespena da urtero Gobernuak jasan behar duen uste oneko edo konfiantzazko 'mozioa'-ren antzekoa: urtero egiaztatu behar da Gobernuak oinarri sendoa duen Parlamentuan edo ez.

- Aurrekontuen proiektua aurkeztu behar du Gobernuak Diputatuen Kongresuan urtea amaitu baino hiru hilabete lehenago.
- Parlamentuaren eginkizunak mugak ditu Aurrekontuak onesteko prozeduran: Gobernuaren oniritzia ezinbestekoa da gastuak gehitzea edo sarrerak gutxitzea dakarren edozein proposamen nahiz aldakizuna bideratua izateko. Hau esan nahi du aurrekontuen lege proiektuaren aurrean aldaketak proposatzen badira gobernuak hori onartu behar du, eta proposamena egiten duenak horrekin batera esan behar du nondik aterako zukeen dirua, baina ezin izango du sarrera bide berri bat proposatu, gobernuak onartzen ez badu.

→ Zuzenketa onuragarriak: gastuaren gehitzea dakarten zuzenketez bideratuak izateko, era berean, proposatu behar dute, Aurrekontuen atal berean, kopuru bereko gastuen murrizketa bat; eta jaso behar dute Gobernuaren onespena. Sarreraren handitzea proposatzen dutenak Gobernuaren onespena izan beharko dute ere. Gobernuak aurrekontuen lege proiektua proposatu dezakeen bakarra da eta hor agertzen diren aurrekontuak erabat baldintzatzen du parlamentuaren eztabaiden bidea. Gobernuak bozka nahikorik baditu aurrekontuen legea bideratzeko (gehiengo absolutua), libertate osoa izango du nahi duen politika bideratzeko

- Aurrekontuen inguruan zenbait berezitasun

- Aurrekontuen legearen mamia (sarrerak eta gastuak) eta beste motako arauak: mamiarekin lotutako gaiez izan behar dute; bestela, Konstituzioaren kontrakoak dira.
- Aurrekontuak garaiz onesten ez direnean: haien indarraren luzapena.
- Aurrekontuen Legearen nolabaiteko malgutasuna. Nolabait gertatuko denaren espektatiba bat da. Gobernuak bere buruari engainatzen dio askotan sarrera gehiagoekin kontuan hartzen naiz eta jakin ez dituela lortuko. Gobernuak malgutasun osoa du aurrekontuen partidak aldatzeko gauzak datozen arabera parlamentuetatik pasatu gabe. Honekin irudikatu dezakegu gobernuak duen gailentasuna.
- Aurrekontuen legeak ezin du zerga berririk ezarri. Zerga berriak ezartzeko berezko legea beharrezkoa da, beraz zerga berriaren inguruan eztabaida berria izateko.

Aurrekontuen legea hainbat gauzetarako erabiltzen zituen gobernuak hainbat gauza sartzeko (agertzen ziren xedapen gehigarriak, xedapen iragankorrak non aldatzen ziren bestelako legeak zeintzuk ez zituzten aurrekontuekin ezer ikusirik). Auzitegi konstituzionala hainbat epai sortu ditu honi mugak jartzeko (aurrekontuen legea soilik erabilia izan daiteke sarrerak eta gastuak aurkezteko), eta neurri handi batean lortua izan da.